


AKTA BILERA EZOHIKO 2022/12/23: GIZARTERATZEKO ERAKUNDE ARTEKO BATZORDEA

Bertaratzailerak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Alfonso Gurpegi Ruiz. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarteratzeko sailburuordea (lehendakaria) ▪ Francisco Pedraza Moreno. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarteratzeko zuzendaria (idazkaria) ▪ Lide Amibilia Bergaretxe, Gizarte Politiketako sailburuordea ▪ Marian Olabarrieta. Gizarte Politiketako zuzendaria (ordezkoa) ▪ Emilio Sola, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako diputatua. ▪ Ana Belén Otero, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako zuzendaria (ordezkoa) ▪ Maite Peña, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako diputatua ▪ Belén Larrión Cortabarria. Gipuzkoako Foru Aldundiko Haurrak Babesteko eta Gizarteratzeko zuzendari nagusia ▪ Teresa Laespada Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasuneko foru diputatua ▪ Oscar Seco Revilla. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarteratze zuzendaria. ▪ Ander Añibarro Maestro. Laudioko alkatea, Eudelen izenean ▪ Rocío Vitero Pérez. Gasteizko Udaleko zinegotzia, Eudelen izenean
Gonbidatu gisa bertaratzten dira	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Dorleta Goiburu Muruaga. Eudelen teknikaria ▪ Edurne Barañano. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzako arduraduna
Ezin etorria adierazi dute	
Lekua	TEAMS bidez
Eguna	2022/12/23, ostirala
Ordua	08:30 - 08:55
Gai zerrenda	2023ko GLLen Aginduaren azterketa

Alfonso Gurpegik, Enplegu eta Gizarteratzeko sailburuordeak, bilera hasi du, eta gogorarazi du atzo Legebiltzarrean Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemaren Legea onartu ondoren egin zela bilera hori. Haren ustez, aurrerapen garrantzitsua izango da babes-sisteman, eta, bertan, hemen dauden erakunde guztiak daude inplikaturik. Beraz, guztiontzat pozgarria dela uste du, eta zorionak eta eskerrak eman nahi ditu erakunde guztien lankidetzagatik.

Hau Erakundearteko Batzordearen ezohiko bilera da, eta bertan ez da onartu aurreko bileraren akta. Gizarte Gaietako Sailburuordetzak eskatuta, deialdia egin da Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan bildutako gastu espezifiko bakoitzerako 2023ko gehieneko zenbatekoak ezartzen dituen eta 2023ko aurrekontu-muga finkatzen duen etorkizuneko agindua ezagutzera emateko.



1.- 2023ko GLLen Aginduaren azterketa

Batzordeko lehendakariak Gizarte Politiketako sailburuorde Lide Amilibiari eman dio hitza, eta hark GLLen Agindua aurkeztu du. Adierazi du Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Lege berriak arau-aldaketak ekarriko dituela Gizarte Larrialdietarako Laguntzen eremuan ere, eta, egoera horretan, garrantzitsua dela GLLak aurreko araudiaren arabera abian jartzea, hau da, lege berria indarrean jarri aurretik, udalek onartutako zenbatekoak izan ditzaten. Ondoren, GLLen dekretu berriak Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Lege berriaren ondoriozko aldaketekin koherente izanik garatuta ditugunean, Batzorde horren baitan GLLen Agindu berria 2023ko apiriletik aurrera indarrean egongo den araudira egokituko da.

GLLen Agindua Lan eta Enplegu Sailaren eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren arteko lankidetzaren emaitza da.

Aurrekontuari dagokionez, 2023ko ekitaldirako 37 milioi euro daude; gaur onartu da Legebiltzarrean GLLen partida hori. Aurrekontuetan orain arte egon den partida ekonomikorik altuena dela azpimarratu du. Izan ere, aurrekontu arruntaren egiturazko zenbatekoa 27 milioi eurokoa izan da, nahiz eta udalek diru-kopuru handiagoak erabili dituzten urtean zehar hainbat funts aktibatzearen ondorioz: hala, COVIDaren babespean, 10 milioi euroekin handitu zen, 3,5 milioi euroekin Izuri Funtsarekin eta 4,5 milioi euroekin Hitzartuz Funtsaren bidez.

Gainera, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen zortzigarren xedapen iragankorra aplikatzeko 4,5 milioiko beste partida bat mantentzen da – Agindu honetan ez dago jasota –. Bertan ezartzen denez, GLLetarako urtero egindako aurrekontu-esleipenak osatzea erabakitzen duten udalerriei konpentsatu egingo zaie. Hori lege berriarekin desagertu egingo da, eta egokitu egin beharko da.

Agindura itzuliz, Aurrekontuen Lege Proiektuaren edukiak bi eranskinekin du zerikusia. Eranskin horiek, hurrenez hurren, honako hauek ezartzen dituzte:

- I. Kontzeptu bakoitzeko gehieneko zenbatekoari aplikatu beharreko ehunekoak, bizikidetzak unitateak osatzen dituzten pertsonen kopuruaren eta haien diru-sarreraren arabera.
- II. Udalerrri bakoitzari dagozkion esleipenak.

I eranskinean, DSBEaren 2023ko balioak hartu dira kontuan, eta 2023ko Aurrekontuen Lege Proiektuaren arabera kalkulatu dira, balioak % 8,5 handituta. I. eranskin hori aldatu egingo da Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Lege berriarekin; izan ere, lege horrek aldaketak sartzen ditu diru-sarrerak bermatzeko errentaren gehieneko zenbatekoa zehazterakoan. Alde horretatik, oinarritzko zenbatekoari, bizikidetzak-unitateko kide bakoitzaren banakako osagarriari eta bizikidetzak-unitateen ezaugarriari lotutako osagarriari dagozkien zenbatekoen batura egingo da. Azken batean, bermatutako errenta berria beste elementu batzuek osatzen dute, eta GLLen dekretu berri bat idatzita, arau-esparru berrira egokituko da.

II eranskinari dagokionez, ez dago aldaketarik; esleipenak azken ekitaldietan erabili diren irizpide berberen arabera kalkulatu dira:

- DSBEren titularrak
- Inolako prestaziorik jasotzen ez duten pertsonak

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan 2022ko urriaren 30ean jasotako datuak erabili dira.

Berritasun nagusia GLLen urteko gehieneko zenbatekoen igoerak dira, bizikidetzak-unitate bakoitzeko, gastu espezifikoko bakoitzera bideratuak. Aldatu direnak zehazten dira:



- Alokairu-gastuengatik: Etxebizitzarako Prestazio Osagarrian eta Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoan izandako igoera ekonomikoekin bat etorritik ezarri dira igoerak: :
 - gehieneko muga hileko 275 eurotik 300 eurora igoko da.
 - Alokaturako etxebizitzan 2 eskatzaile badaude, bi bizikidetz-unitaterako muga hilean 150 eurokoa izango da, hileko gehieneko 137,5 euroen ordez.
- Etxebizitza erostearen ondoriozko kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuengatik, gehienez 300 euro hilean, aurreko 250 euroen aldean.
- Oinarritzko premiei dagozkien gastuengatik, hala nola jantziak, elikagaiak, hezkuntza edo osasun-arreta, gehienez 2.500 euro urtean, GLLen aurreko Aginduko 1.850 euroen ordez. Hori da hazkunde konparatiboki handiena.

2022an, energia-gastuen ondoriozko gehikuntzak egin ziren.

Lide Amilibiak, bere azalpenari amaiera emateko, adierazi du onartzeko aurkezten den Agindua agindu iragankorra dela, Lege berriaren arabera agindu bat lantzen den bitartean.

Erakunde arteko Batzordeko kideek ez dute iruzkinik egiten.

Lehendakariak 2023rako GLLen Aginduaren bozketari ekin dio, eta bertaratuek aho batez onartu dute.

Bilera amaitu baino lehen, Maite Peñak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako diputatuak, Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemaren Legearen onarpenaren mugarrria jasota geratzea eta zorionak ematea nahi du.

Bilera amaitutzat eman da 08: 55ean.

Vº Bº

ALFONSO GURPEGUI RUIZ	FRANCISCO PEDRAZA MORENO
Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeko presidentea	Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeko idazkaria